



NATURGOLF, SA

URTEKO KONTUAK

2008. EKITALDIA



IDENTIFIKAZIO DATU OROKORRAK

ENPRESAREN IDENTIFIKAZIOA

IFZ:

Sozietatearen izena:

Sozietatearen egoitza:

Udalerria: Probintzia:

Posta kodea: Telefonoa:

JARDUERA

Jarduera nagusia:

CNAE kodea:

LANGILEAK

URTEA 2008. URTEA 2007.

Soldatapeko langileak (ekitaldiko batez bestekoa):

FINKOA	10,3	11,4
K		
BESTEL	2	2,7
AKOAK		

KONTUEN AURKEZPENA

Kontuen itxiera data:

URTEA	HILA	EGUNA
2.008	12	31

Aurkeztutako orrialde kopurua:

UNITATEAK

NATURGOLF, S.A.
EGOERAREN BALANTZE LABURTUA
2008KO ABENDUAREN 31AN
 (zenbatekoak eurotan)

<u>AKTIBOA</u>	Oharra Memoria	Saldoa 2008/12/31an
ACTIVO EZ KORRONTEA		3.612.137,05
I. Ibilgetu ukiezina	(5)	7.342,25
II. Ibilgetu materiala	(6)	3.599.180,40
V. Epe luzeko finantza inbertsioak	(8)	5.614,40
AKTIBO KORRONTEA		198.582,92
II. Izakinak	(7)	36.711,95
III. Merkataritzako zordunak eta kobratu beharreko t	(8)	133.853,67
2. Beste zordun batzuk		133.853,67
V. Epe laburreko finantza inbertsioak	(8)	9.718,04
VI. Epe laburreko aldizkatzeak	(8)	4.606,06
VII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak		13.693,20
AKTIBOA GUZTIRA		3.810.719,97

<u>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA</u>	OHARRA Memoria	Saldoa 2008/12/31an
ONDARE GARBIA		3.343.604,00
A-1) <u>Funts propioak</u>		<u>2.579.400,30</u>
I. Kapital harpidetua	(9)	4.274.775,57
III. Erreserbak	(9)	5.098,54
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	(9)	(1.572.634,30)
VI. Bazkideen bestelako ekarpenak	(9)	672.856,09
VII. Ekitaldiko emaitzak	(9)	(800.695,60)
A-3) <u>Diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak</u>	(12)	<u>764.203,70</u>
PASIBO EZ KORRONTEA		153.784,13
II. Epe luzeko zorrak	(8)	153.784,13
3. Epe laburreko beste zor batzuk		153.784,13
PASIBO KORRONTEA		313.331,84
III. Epe laburreko zorrak	(8)	189.717,65
1. Kreditu erakundeekiko zorrak		154.025,78
3. Epe laburreko bestelako zorrak		35.691,87
V. Merkataritzako hartzekodunak eta ordaindu behē	(8)	99.617,86
2. Beste hartzekodunak		99.617,86
VI. Aldizkatzeak	(8)	23.996,33
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		3.810.719,97



NATURGOLF, S.A.
GALERA ETA IRABAZIEN KONTU LABURTUA
2008KO ABENDUAREN 31AN BUKATUTAKO
URTEKO EKITALDIARI DAGOKIONA

	Oharra Memoria	Saldoa 2008/12/31 an
<u>ERAGIKETA JARRAIK</u>		
1. Negozioen kopuruaren zenbateko garbia	(11)	795.684,32
4. Hornidurak	(11)	(21.470,00)
5. Ustia ketako beste sarrera batzuk	(11)	78.438,90
6. Langileen gastuak	(11)	(387.372,39)
7. Ustia ketako beste gastu batzuk	(11)	(1.035.987,52)
8. Ibilgetuaren amortizazioa	(11)	(224.082,21)
9. Finantzako ibilgetuaren diru laguntzen egozpena eta bestelakoak	(11)	81.330,23
11. Ibilgetua besterentzearen hondaketak eta emaitzak	(11)	(84.999,64)
<u>USTIAKETA EMAITZAK</u>		(798.458,31)
12. Finantza sarrerak	(11)	12.677,93
13. Finantza gastuak	(11)	(14.915,22)
<u>FINANTZA EMAITZA</u>		(2.237,29)
<u>ZERGEN AURREKO EMAITZA</u>		(800.695,60)
Irabazien gaineko zerga		0,00
<u>ERAGIKETA JARRAIETATIK DATORREN EPEAREN EMAITZA</u>		(800.695,60)
<u>EKITALDIAREN EMAITZA</u>		(800.695,60)

NATURGOLF, S.A
ONARTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA LABURTUA
2008KO ABENDAUREN 31N BUKATUTAKO
URTEKO EKITALDIARI DAGOKIONA

	Oharra Memoria	Saldoa 2008/12/31 an
A) GALERA ETA IRABAZIEN KONTUAREN EMAITZA		(800.695,60)
<hr/>		
<u>Galera eta irabazien kontura egindako transferentziak</u>		
VIII. Jasotako diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak	▼ (12)	(81.330,23)
IX. Zerga efektua	▼ (12)	0,00
GALERA ETA IRABAZIEN KONTURA EGINDAKO TRANSFERENTZIAK GUZTIRA		(81.330,23)
<hr/>		
ONARTUTAKO SARRERA ETA GASTUAK GUZTIRA		(882.025,83)
<hr/>		

**2008KO ABENDUAREN 31AN BUKATUTAKO
 URTEKO EKITALDIARI DAGOKIONA**

	Eskrituratutako kapitala	Erreserbak	Aurreko ekitaldietako emaitzak	Bazkideen bestelako ekarpenak	Ekitaldiko emaitzak	Jasotako diru laguntzak, dohaintzak eta legatuak	GUZTIRA
2007 EKITALDIKO HASIERAKO SALDOA	4.274.775,57	5.098,54	(1.443.918,04)	724.190,45	(852.220,80)	--	2.707.925,72
I. Kontabilitateko arau berrietara egokitzeak eragindak	--	--	(685,91)	--	--	845.533,93	844.848,02
II. 2007ko akatsengatik egin beharreko dohikuntzak	--	--	--	--	--	--	0,00
2008 EKITALDIAREN HASIERAKO SALDOA	4.274.775,57	5.098,54	(1.444.603,95)	724.190,45	(852.220,80)	845.533,93	3.552.773,74
I. Onartutako sarrera eta gastuak guztira	--	--	--	--	(800.695,60)	(81.330,23)	(882.025,83)
II. Bazkide edo jabeekin egindako eragiketak	--	--	--	--	--	--	--
3. Bazkide edo jabeekin egindako bestelako erag	--	--	--	672.856,09	--	--	672.856,09
III. Ondare garbiaren bestelako aldaketak	--	--	(128.030,35)	(724.190,45)	852.220,80	--	0,00
EPE AMAIERAKO SALDOA	4.274.775,57	5.098,54	(1.572.634,30)	672.856,09	(800.695,60)	764.203,70	3.343.604,00

2008KO EKITALDIKO MEMORIA

1.- ENPRESAREN JARDUERA

NATURGOLF SA, lehen TOURMONTANA SA zena, 1993ko azaroaren 19an eratu zen. Sozietate xedetzat honako hau du: batetik, ekonomiaren, gizartearen, kulturaren, kirolaren eta turismoaren inguruko jarduerak sustatzea, garatzea eta gauzatzea; bestetik, naturgune babestuetan, natura ingurunearekin zerikusia duten jarduerak kudeatzea (betiere, aberastasuna eta lanpostuak sortzen dituzten ekimenak sustatuz, Arabako gizartea eta ekonomia garatzen eta hobetzen lagunduko duten jarduerak).

Sozietate xede horren barruan, besteak beste, honako jarduera hauek sartzen dira:

- a) Enpresa ekimenak sustatzea eta garatzea, batez ere edonolako kirol instalazioak eraikitzeari eta ustiatzeari dagozkionak, ordainaren bidez nahiz ordainik gabe.
- b) Lehen adierazitako jarduerak egiteko beharrezkoak diren tresna eta izapide mota guztiak kudeatzea.
- c) Aipatutako jardueretarako eta ekimenetarako gaur egun dauden edo etorkizunean sortuko diren hainbat laguntza mota, diru-laguntza edo kreditu bereziak zuzenean nahiz zeharka bideratzea eta kudeatzea.
- d) Naturgune babestuak zaintzeko, kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea.
- e) Arabako Lurralde Historikoko landa inguruneari lotutako proiektuetan enplegua sustatzea.
- f) Naturgune babestuei buruzko liburuak, liburuxkak eta dibulgazio materiala editatzea eta saltzea.

Egun, Izki-Golf gunea eraikitzea eta ustiatzea du jarduera nagusia. Gune hori bi golf zelaiek (Urturikoa eta Lagrangoa) osatzen dute.

2.- URTEKO KONTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

2.1. IRUDI ZEHATZA

Urteko kontuak sozietatearen kontabilitate erregistroetatik abiatuta prestatu dira, indarrean dagoen merkataritza legediaren eta Kontabilitate Plan Orokorrean ezarritako arauen arabera, sozietatearen ondarearen, finantza egoeraren, emaitzen eta ondare garbiaren irudia erakusteko asmoz.

2.2. KONTABILITATE PRINTZIOAK

Irudi zehatza erakusteko nahikoa izan da 1514/2007 Errege Dekretuak onartzen duen Kontabilitate Plan Orokorrean garatzen diren nahitaezko kontabilitate printzipioak aplikatzea.

2.3. URTEKO KONTU LABURTUAK

Sozietate Anonimoen testu bateginean ezarritako baldintzak betetzeko, administratzaileek laburtuta aurkeztu dituzte urteko kontuak.

2.4. INFORMAZIOA ERKATZEA

1514/2007 Errege Dekretua aplikatzen den lehenengo ekitaldia izanik, urteko kontuak hasierakotzat joko dira eta ez dira 2007koekin erkatutako kopuruak adieraziko. Hori dela eta, I. eranskinean 2007ko abenduaren 31an bukatutako urteko ekitaldiaren galera eta irabazien balantzea eta kontuak sartu dira.

2.5. KONTABILITATEKO ARAU BERRIETARA IGAROTZEAREN ONDORIOZKO ALDERDIAK

4. oharrean zehaztu diren balorazio arauak erabili dira 2008ko abenduaren 31an bukatutako urteko ekitaldiko kontuak prestatzeko.

1514/2007 Errege Dekretuko lehenengo xedapen iragankorrean jarritakoarekin bat, elkarteak 2007ko abenduaren 31an indarrean zeuden printzipio eta arauen arabera, irekiera balantzeko ondare elementu guztiak baloratzea erabaki du, finantza baliabideak izan ezik, horiek arrazoizko balioaren arabera baloratzen baitira.

2008ko urtarrilaren 13ean kontabilitateko arau berrietara igaro izanak honako eragina izan du elkartearen ondare garbiarengan:

- Ondare garbian 845.533,93 €ko zenbatekoa duten kapitaleko diru laguntzak sartu dira. Lehen "Hainbat ekitalditan banatzeko sarrerak" partidan ageri ziren. Horiek duten zerga efektua nulua dela jo da, ez baita elkarteak sortzen dituen zerga oinarri negatiboetatik eratorritako kreditu fiskala erregistratzen.
- Aurreko ekitaldian "Hainbat ekitalditan banatzeko gastuak" partidan jasotako zorren formalizazio gastuak "Aurreko ekitaldietako emaitza negatiboak" kontuaren barruan jaso dira ekitaldia irekitzean, 685,91 €ko zenbatekoarekin.

Gainera, bi birsailkapen egin da, baina horiek ez dute eraginik elkartearen ondare garbian:

- "Itzulketarako funtsa" kontuan lehen ageri zen zenbatekoa "Lurren eta ondasun naturalen balioaren hondatzea" partidan erregistratu da, eta 730.749,26 €ko balioa dauka.
- 218.276,92 €ko zenbatekoko eraikuntza aktibatu da, renting bidez eskuratu da eta Kontabilitateko Plan Orokorra onartu zuen 1514/2007 Errege Dekretuak emandako definizioa betetzen du.

I. eranskinean balantzea eta 2007ko ekitaldiko urteko kontuen zati ziren galera eta irabazien kontua sartu da.

3.- EMAITZEN BANAKETA

Administrazio Kontseiluak ekitaldiko emaitzen aplikazioa onartzea proposatuko dio Akziodunen Batzar Orokorriari: 800.695,60 euro galduko dira, eta bazkideek ekarpenak egingo dituzte orekatzeko.

4.- BALORAZIO ARAUAK

a) Ibilgetu ukiezina

Eskuratze kostuaren arabera baloratzen dira eta 5 urteko epean amortizatuko dira linealki. Partida honetako zenbateko nagusia Patente eta Marken eta Aplikazio Informatikoen kontzeptuei dagokie.

Ekitaldi bakoitzaren bukaeran, ibilgetu ukaezineko elementuen balioaren analisia egingo da, horietakoren bat kaltetuta egotearen zantzurik dagoen egiaztatzeko.

b) Ibilgetu materiala

Ibilgetu materialari dagozkion ondasunak eskuratze kostuaren arabera baloratzen dira.

Tourmontana Landa Turismoko Elkartetik Tourmontana SArri eskualdatutako ondasunak elkarte horren kontabilitate erregistroetan agertzen ziren balioen arabera kontabilizatu ziren, jasandako BEZa kenduta.

Ibilgetu materialaren amortizazioa metodo linealaren bidez kalkulatzen da sistematikoki, ondasunen bizitza baliagarriaren arabera:

KONTZEPTUA	Bizitza baliagarriaren urteak
- Biltokiko eraikina	25
- Gizarte Eremuko eraikina	23
Aldagelen eraikina eta etxola	22
- Instalazioak	15
- Makineria	10
- Altzariak	10
- Tresnak	5
- Informatika ekipoa	5

Sozietateak lur eta eraikuntzetan nahiz instalazioetan egindako inbertsioak Lagrango Udalak eta Urturiko Administrazio Batzordeak sozietateari erabiltzeko laga dizkioten lurretan egin dira.

Lagrango Udalak 29 urterako laga dizkio, hitzarmena sinatu zen egunetik, hots, 2001eko abenduaren 4tik, hasita. Urturiko Administrazio Batzordeak, berriz, 29 urterako laga dizkio, 1991ko uztailaren 3tik, hau da, azken erakunde honekiko hitzarmena sinatu zenetik hasita.

Elkarteak itzulketa funtsa egitea erabaki zuen, Lagrango Udalak eta Urturiko Administrazio Batzordeak sozietateari erabiltzeko laga dizkioten lurretan egindako lur nahiz instalazioetan egindako inbertsioak berreskuratzeko esleipen epearen bukaeran.

Kontabilitate Plan Orokorra onartu duen 1514/2007 Errege Dekretua indarrean sartzearekin batera, itzulketa funtsa desagertu da. Horren zenbatekoa lurren balioaren hondaketa gisa hartu da, eta ibilgetu materialaren balio garbiari eragin dio.

Halaber, arau hori aplikatzearen ondorioz, makila gelaren zenbatekoa aktibatu da eraikuntzetan, renting kontratu bidez finantzatutakoa, izan ere, aktibo definizioarekin bat datorrela jo da. Elementu hau baloratzeko 2008ko urtarrilaren 1ean aktibatu zenean ordaintzeke zituen kuotak hartu dira aintzat.

█
Ekitaldi bakoitzaren bukaeran, ibilgetu material elementuen balioaren analisisa egingo da, horietakoren bat kaltetuta egotearen zantzurik dagoen egiaztatzeko.

Ibilgetu materialaren erabilera edo bizitza erabilgarria luzatzen ez duten mantentzearen eta konpontzearen gastuak jazotzen diren unean bertan galera eta irabazien kontuan kargatzen dira.

c) Finantza baliabideak

- Finantza-aktiboak

Elkartek dituen finantza-aktiboak honakoak dira:

Zerbitzuak emateagatik saldo zordunak, langileekin eta administrazio publikoekin.
Kobratzeke dauden sorrarazitako interesak
Sorrarazi ez diren eta ordaindu diren gastuak
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak

Hasieran arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira, egindako transakzio kostuak barne. Amortizatutako kostuaren ondoren baloratzen dira berriro.

Bezeroen kaudimen gabeziaren baloraziozko zuzenketa egiteko banakako saldoak egiteko aukeren berrikusketa eta kaudimen gabezien analisi historikoa baliatzen dira.

- Finantza-pasiboak

Elkartek dituen finantza-pasiboak honakoak dira:

Merkataritzako eragiketengatik hartzekodun saldoak, langileekin eta administrazio publikoekin.
Kreditu erakundeekiko zorrak
Sorrarazitako eta kobratutako sarrerak.
Jasotako finantzak

Amortizatutako kostuaren arabera baloratuta ageri dira.

Iraungitze epearen arabera sailkatzen dira; epe luzekoak eta epe motzekoak.

d) Izakinak

Eskuratze prezioaren arabera baloratzen dira.

Alde batetik, jendearen eskura jartzen diren elementuak sartzen dira, hala nola, golfeko bolak eta makilak, eta bestetik, enpresak eskuratu eta saltzen dituen elementuak (arropa, bolak, teeak, eskularruak), azken inbentarioan gelditzen direnak.

Ekitaldia amaitzean elementu horiek guztiak berriz kontatzen dira.

Izakinen balio garbi bihurtzea eskuratze prezioa edo ekoizpen kostea baino baxuagoa bada, baloraziozko beharrezko zuzenketa egiten dira eta gastu gisa jasotzen dira galeren eta irabazien kontuan.

Izakinen balioaren zuzenketa eragin zuten egoerak hala izateari uzten badio, zuzenketa zenbatekoa berrikusten da eta sarrera gisa jasotzen da galera eta irabazien kontuan.

e) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak.

Itzulgarriak ez diren kapitaleko diru laguntzak emandako zenbatekoaren arabera baloratuko dira eta ematerakoan erregistratuko dira ondare garbiaren baitan, zerga eragina garbituta.

1994ko ekitaldia baino lehen egindako inbertsioek eragindako dirulaguntzetan, ez dago identifikaziorik dirulaguntza jasotako ibilgetuarekin, zeren haren zenbatekoa Tourmontana Landa Turismoko Elkartetik Tourmontana, SAra eskualdatutako ondasun, eskubide eta betebeharren kontrapartida gisa sartu baita.

Kapitaleko dirulaguntzak emaitzei egozteko, haiek bi taldetan sailkatu dira:

1. 1994ko ekitaldia baino lehenagoko dirulaguntzak:

1993ko irailaren 21eko Diputatuen Kontseiluaren 514 Akordio bidez identifikatutakoa amortizazio portzentajearen eta 1993ko abenduaren 31 arte egindako inbertsioen hondaketaren ondoriozko galeren arabera egozten dira.

2. Geroztik jasotako dirulaguntzak:

Diru laguntza horien aplikazioa izan duten ondasunen amortizazioaren arabera egozten dira.

Dirulaguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen badira, finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldiko sarrera moduan egotziko dira.

f) Sozietateen gaineko Zerga

Sozietateak ez du inolako gasturik kontabilizatzen kontzeptu honengatik, ekitaldian emaitza negatiboak dituelako eta zergari dagokionez ere zerga oinarri negatiboa duelako.

Zuhurtasun irizpideari jarraiki, sozietateak ez du kontabilizatu zerga honetako zerga oinarri negatiboaren ondoriozko kreditu fiskala.

g) Diru-sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapen irizpidearen arabera egozten dira, hortik eratoritzen den moneta edo finantza korrontea jazotzen den unean aintzat hartu gabe.

Hala ere, ekitaldia itxiko den datan egindako mozkinak bakarrik zenbatuko ditu elkarteak, eta aurreikus daitezkeen arriskuak eta galerak, behin-behinekoak barne, ezagutu bezain laster zenbatuko dira.

Ondasunak saltzegatik edo zerbitzuengatik jasotako sarrerak, haiengatik jasotako edo jaso beharreko kontrapartidaren arrazoizko balioaren arabera egiaztatzen dira. Goiz ordaintzegatik, bolumenagatik edo bestelako arrazoiengatik egindako deskontuak eta kredituen nominalera erantsitako interesak horien beren gutxitze gisa erregistratzen dira. Hala ere, urtebeteko iraungitze epea baino gutxiago eta kontratu interesik ez duten merkataritzako kredituetarako erantsitako interesak gehitzen ditu elkarteak, eskudiru fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

h) Hornidurak eta kontingentziak

Kontabilitateko plan orokorreko kontzeptu esparruan emandako definizioa eta kontabilitate errekonozimenduko irizpideak betetzen dituzten pasiboak horniketa gisa hartzen ditu sozietateak, zenbatekoaren edo deuseztearen datagatik zehaztugabeak badira.

Aurreko betekizunak dituzten pasiborik ez da hauteman.

5.- IBILGETU UKIEZINA

Ibilgetu ukiezina osatzen duten partidetan izandako aldaketa eta 2008ko abenduaren 31n zegoen saldoa hauxe da:

KONTZEPTUA	Saldoa 08/01/01ean	Gehikuntz	Murrizketak	Saldoa 08/12/031an
Informatika aplikazioak	7.762,06	6.388,00	0,00	14.150,06
Patenteak eta markak	1.711,44	0,00	0,00	1.711,44
GUZTIRA	9.473,50	6.388,00	0,00	15.861,50

Ilaren amortizazioa	Saldoa 08/01/01ean	Gehikuntz ak	Murrizketak	Saldoa 31/12/08ean
Informatika aplikazioak	5.844,78	1.583,03	0,00	7.427,81
Patenteak eta markak	801,44	290,00	0,00	1.091,44
GUZTIRA	6.646,22	1.873,03	0,00	8.519,25
BALIO GARBIA	2.827,28			7.342,25

Erabat amortizatutako ondasun inmaterialak:

2008ko abenduaren 31n guztiz amortizatutako ondasun ukiezinak zeuden, 3626,50 euroko zenbatekoa.

6.- IBILGETU MATERIALA

Ibilgetu inmaterialaren partidei dagokienez, hauexek dira 2008ko abenduaren 31rako aurreikusitako saldoa eta ekitaldian izandako mugimendua:

KONTZEPTUA	Saldoa	Gehikuntzak	Bajak	Saldoa
	08/01/01ean			08/12/31ean
Lurrak	2.763.661,33	7.724,58	0,00	2.771.385,91
Eraikuntzak	1.457.493,19	10.252,00	0,00	1.467.745,19
Instalazioak	1.128.182,53	36.356,93	0,00	1.164.539,46
Makineria	517.327,38	950,00	0,00	518.277,38
Tresnak	144.097,05	3.085,00	4.383,81	142.798,24
Altzariak	265.570,18	0,00	0,00	265.570,18
Informatika ekipoak	66.980,87	4.711,72	646,24	71.046,35
GUZTIRA	6.343.312,53	63.080,23	5.030,05	6.401.362,71

Ibilg. mat. amortiz.	Saldoa	Gehikuntzak	Bajak	Saldoa
	08/01/01ean			08/12/31an
Eraikuntzak	486.196,70	69.436,45	0,00	555.633,15
Instalazioak	618.000,94	77.529,97	0,00	695.530,91
Makineria	397.920,87	33.471,22	0,00	431.392,09
Tresnak	113.234,28	10.627,46	4.383,81	119.477,93
Altzariak	120.071,88	19.692,57	0,00	139.764,45
Informatika ekipoak	33.829,61	11.451,51	646,24	44.634,88
GUZTIRA amort.	1.769.254,28	222.209,18	5.030,05	1.986.433,41

KONTZEPTUA	Saldoa 08/01/01ean	Eskualdaketa	Gehikuntzak	Saldoa 08/12/31an
Lurren balioaren hondaketa	730.749,26	0,00	84.999,64	815.748, 90

BALIO GARBIA	3.843.308,99			3.599.180,40
---------------------	---------------------	--	--	---------------------

Eraikuntzen kontuan sartzan da finantza errentamendu kontratu bidez, renting modalitatea, eskuratutako elementua. Hauek dira bere ezaugarriak:

Ondasunak jatorrian duen kostua	218.276,82
Kontratuaren iraupena (1) :	120 hilabete
08-12-31rako asetako kontu kopurua	20 kuota
Aurreko ekitaldietan asetako kuotak	27.225 €
Ekitaldian bertan asetako kuotak	36.300 €
Erosketa aukeraren balioa	1,00 €

(1) 60 hilabete hasieran, beste 60 berrituz gero

Erabat amortizatutako ondasun materialak:

2008ko abenduaren 31n guztiz amortizatutako ondasun materialak zeuden, 828.729,48 euroko zenbatekoa.

7.- IZAKINAK

Abenduaren 31n partida honen osaera eta aldakuntza hauek ziren:

KONTZEPTUA	Saldoa 08/01/31n	Aldaketa	Saldoa 08/12/31n
Golfeko gaiak	11.294,52	1.537,82	12.832,34
Dendako materiala	31.361,54	-7.481,93	23.879,61
GUZTIRA	42.656,06	-5.944,11	36.711,95

8.- FINANTZA BALIABIDEAK

Finantza-aktiboak

Elkarteko finantza-aktibo guztiak kobratu beharreko mailegu eta partidetan jasotzen dira. Honakoa da partida honen osaera zehatza:

KONTZEPTUA	Epe luzea	Epe motza	Guztira
Zordunak	--	27.197,35	27.197,35
Ordainsarien aurrerakinak	--	1.496,67	1.496,67
Zerga arruntagatik aktiboak (10 oharra)	--	1.804,54	1.804,54
Administrazioekin beste kreditu batzuk. Londurra	--	103.355,11	103.355,11
Enpresei emandako kredituak	--	9.718,04	9.718,04
Osatutako fiantzak	5.614,40	--	5.614,40
Epe laburreko aldizkatzeak	--	4.606,06	4.606,06
GUZTIRA	5.614,40	148.177,77	153.792,17

Administrazio publikoekin beste kreditu batzuk kontuaren osaera:

KONTZEPTUA	Guztira
Zergengatik zorrak dituen adm. Publikoa (10 oharra)	100.356,11
Diru laguntzagatik zorra duten adm. publikoak (12 oharra)	2.999,00
GUZTIRA	103.355,11

Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak “Zorrak eta ordaindu beharreko partidak” kontuan jasota daude eta hau da osaera:

KONTZEPTUA	Epe luzea	Epe motza	Guztira
Kreditu erakundeekiko zorrak	--	154.025,78	154.025,78
Ibilgetuaren hornitzaileak	153.784,14	32.809,77	186.593,91
Zerbitzuak ematearen hartzekodunak	--	70.843,45	70.843,45
Pertsonala	--	707,92	707,92
Administrazio publikoak (10 oharra)	--	28.066,49	28.066,49
Epe laburreko bestelako zorrak	--	2.882,10	2.882,10
Epe laburreko aldizkatzeak	--	23.996,33	23.996,33
GUZTIRA	153.784,14	313.331,84	467.115,98

Kreditu erakundeekiko zorrak

Partida honen barruan, amortizatzeke dagoen kreditu erakundeekin izenpetutako 1.202.024,21 euroko hasierako zenbatekoa duen mailegua jaso da. Mailegu hori, 1999ko uztailean formalizatu zen 10 urterako, bi urteko amortizazio gabeziarekin eta seihilekoko ordainketekin. Mailegu hori 2009ko ekitaldian iraungiko da.

Ibilgetuaren hornitzaileak

Makila gelaren renting kontratu baten kuota ordaindugabeen zenbateko eguneratuari dagokio.

Kontratu hori 2007an sinatu zen eta hasieran 60 hilerako da eta beste 60 hilerako berritu daiteke. Horiek bukatutakoan erosketa aukera dago.

Administrazio Publikoak

Hona hemen partidaren xehetasunak:

KONTZEPTUA	Euroak
Foru ogasun hartzekoduna (10 oharra)	13.430,58
Gizarte Segurantza Hartzekoduna	14.635,91
GUZTIRA	28.066,49

9.- FUNTS PROPIOAK

Honako hau izan da funts propioen kontuen bilakaera ekitaldian zehar:

KONTZEPTUA	Euroak
Sozietatearen kapitala	4.274.775,57
erreserba	5.098,54
Aurreko ekitaldietako emaitzak	-1.572.634,30
Ekitaldiko emaitza	-800.695,60
Bazkideen bestelako ekarpenak	672.856,09
GUZTIRA	2.579.400,30

Sozietatearen kapitala

Kapital soziala 12.701 akziok osatzen dute, horietako bakoitzak 336,57 euroko balio nominala duelarik, oso-osorik harpidetua eta ordaindua.

Akziodunak honela banatzen dira:

AKZIODUNA	AKZIO KOP.
Arabako Foru Aldundia	12.698
Bernedoko Udala	1
Lagrango Udala	1
Urturiko Administrazio Batzarra.	1

Bazkideen ekarpena

Arabako Foru Aldundiak 672.856,09 euroko ekarpena egin du ekitaldiko galerak konpentsatzeko; Diputatuen Kontseiluak 2008ko martxoaren 18an onartu zuen ekarpena.

10.- ZERGA EGOERA

Sozietateak entitate publikoekin 2008eko abenduaren 31n zituen saldoak honakoak dira, zehatz-mehatz:

KONTZEPTUA	Saldoa 08/12/31an	
	ZORDUNA	HARTZEKODUNA
<u>Foru Ogasuna</u>		
- Foru Ogasuna zergengatik zordun		
- Foru Ogasuna BEZagatik zordun	1.804,54	
.....	100.356,11	
- Foru Ogasuna zordun		13.430,58
<u>Gizarte Segurantza</u>		<u>14.635,91</u>
GUZTIRA	102.160,65	28.066,49

Zerga ikuskatzeak

Aplikatzekoak zaizkion zerga kontzeptu guztiak ikuska daitezke, legezko preskripzio epean.

Sozietateen gaineko Zerga

Kontabilitate emaitza negatiboa Sozietateen gaineko Zergako zerga oinarri negatiboarekin bat dator.

Sozietateak ez du erregistratzen ekitaldi honetako eta aurrekoetako zerga oinarri negatiboen ondoriozko kreditu fiskala, horiek geroan berreskuratzekeko posibilitateak ezdeusak direla iritzita.

11.- GASTUAK ETA SARRERAK

a) HORNIKUNTZAK

Partida honetan, instalazioak mantentzeko behar diren produktu kontsumoak eta beste artikulua batzuk sartzen dira. Saldoa 21.470 eurokoa zen 2008ko abenduaren 31n, izakinen aldaketa (ekitaldiaren amaieran 5.944,11 euroko saldoa zuena) kontuan hartu ondoren.

KONTZEPTUA	Kontsumoak guztira
Salgai erosketa	10.956,49
Beste hornidura batzuen erosketak	4.569,40
Izakinen aldakuntza	5.944,11
GUZTIRA	21.470,00

b) LANGILEEN GASTUAK

KONTZEPTUA	Saldoa 08/12/31n
Lansariak, soldatak eta asimilatuak	306.732,49
Gizarte Segurantzza	69.729,69
Langileak trebatzeko gastuak	10.910,21
GUZTIRA	387.372,39

c) IBILGETUAK AMORTIZATZEKO ZUZKIDURAK

Arlo honetan honako hauek sartzen dira:

KONTZEPTUA	Saldoa 08/12/31n
Ibilgetu inmaterialaren amortizazioa	1.873,03
Ibilgetu materialaren amortizazioa	222.209,18
GUZTIRA	224.082,21

d) BESTELAKO USTIAPEN GASTUAK

Jarraian, adierazgarrienak zehaztuko ditugu:

KONTZEPTUA	Saldoa 08/12/31n
Errentamenduak	27.784,53
Konponketak	20.902,16
Zerbitzu profesionalak	802.318,82
Aseguru primak	11.160,23
Banku zerbitzuak	4.116,22
Publizitatea	62.644,92
Hornikuntzak	66.814,30
Beste zerbitzu batzuk	18.434,15
Zergak	20.236,84
Bestelako galerak kudeaketa arrunta	184,57
Ez ohiko gastuak	1.390,78
GUZTIRA	1.035.987,52

**e) IBILGETUA BESTERENTZEAREN ONDORIOZKO HONDAKETA ETA
EMAITZA**

84.999,64 euroko zuzkidura egin da, lagatako lurretan amortizatu gabeko eta ezarritako ondasunen hondaketari aurrea hartzeko.

f) FINANTZA GASTUAK

Honen barruan, Sozietateak kreditu erakundeekin eta makilen gelagatik dituen kredituak sortutako interesak sartzen dira. Horien zenbatekoa 14.915,22 euro da.

g) USTIAPENENKO SARRERAK

Negoio zifren zenbateko garbia

Negoio zifraren zenbateko garbia honela bana dezakegu:

KONTZEPTUA	Saldoa 08/12/31n
Salgai salmenta	27.047,49
Zerbitzu emateak	768.636,83
SALMENTAK GUZTIRA	795.684,32

Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk

Jarraian, ustiapeneko beste sarrera batzuk zehazten dira:

KONTZEPTUA	Saldoa 08/12/31n
Ustiapenerako dirulaguntzak	19.929,31
Lagatako industria jabetza	14.074,23
Hainbat zerbitzu	44.338,35
Ez ohiko sarrerak	97,01
SARRERAK GUZTIRA	78.438,90

19.929,31 euroko kopurua jaso da lurraldeko golf federazioetatik eta Arabako Foru Aldunditik jasotako ustiapenerako dirulaguntza moduan.

Askotariko golf sarrerak babesleen edo geldirik dagoen publizitatetik datoz, bizikleten alokairutik eta eskualdea sustatzeko bestelako jardun alternatiboetatik.

h) FINANTZAKO DIRU SARRERAK

Kontu korranteetan izandako saldoen korritu moduan sortutako zenbatekoek 12.677,93 euro jotzen dute.

i) IBILGETUAREN DIRU LAGUNTZEN EGOZPENA

Ekitaldiko emaitzara lekualdatu den diru laguntzen kapitalaren zenbatekoa 81.330,23 € da.

12.- DIRULAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK

2008ko abenduaren 31ko balantzean dagoen diru laguntza, dohaintza eta legatuen saldoaren osaera honakoa da:

KONTZEPTUA	Saldoa 08/01/01e an	Handitzea	Intsuldaketa Emaitzak	Saldoa 08/12/31an
Kapitaleko dirulaguntzak	845.533,93	00,00	81.330,23	764.203,70

Diru laguntza horiek honako erakundeek emandakoak dira:

ERAKUNDEA	Euroak
Arabako Foru Aldundia	569.421,54
Eusko Jaurlaritzak	42.474,48
Arabako Golf Federazioa	152.307,68
GUZTIRA	764.203,60

Guztiak ibilgetua finantzatzeko dira.

Gainera, elkarteak ohiko jarduna finantzatzeko 19.929,31 €ko diru laguntza jaso du. Honela banatzen dira jasotako diru laguntzak, erakunde emailearen arabera:

ERAKUNDEA	Emandako zenbatekoa	Kobratzek o
Izki Golf kirol taldea (1)	15.210,64	--
Eusko Jaurlaritzak	2.999,00	2.999,00
Euskal Golf Federazioa	1.719,67	--
GUZTIRA	19.929,31	2.999,00



(1) Arabako Foru Aldundiak Izki Golf kirol taldeari emandako diru laguntzak. Talde honek ez du atalik ez pertsona juridikorik osatzen Naturgolf, SA elkarte publikoaren baitan, dagokion kirol federazioko kide izanda, golf kirola egiteko.

Elkarteak diru laguntza horiek emateko baldintzak bete ditu.

13.- ERAGIKETAK LOTUTAKO ALDERDIEKIN.

Elkartearekin lotutako aldeekin egindako eragiketak zerbitzuak ematekoak dira eta honakoak dira:

Erakundea	Eragiketen bolumena (1)		Saldoa	
	Sarrerak	Gastuak	Zorduna	Hartzekoduna
- Arabako Foru Aldundia	7.500,00	--	8.700,00	--
Urturiko Administrazio Batzarra.	--	4.035,59	--	--

(1) BEZa kanpo

Gainera, ekitaldian zehar, elkarteak Arabako Foru Aldundiko kontu orokorretan integratuta, baina bere izenean, duen kontu berezi batek mantentzen dituen baliabideen bidez errendimenduak sorrarazten joaten dira. Zenbatekoa 8294,37 €koa izan da eta 08-12-31an kobratzeke daude.

14.- BESTELAKO INFORMAZIOA

- Langileen batez besteko kopurua, kategorien arabera:

KATEGORIA	Gizona	Emakume a	GUZTIRA
Zuzendari kudeatzailea	1,0	0,0	1,0
Turismoko teknikaria	0,0	0,7	0,7
Kalitateko teknikaria	1,0	0,0	1,0
Merkataritzako teknikaria	0,5	0,0	0,5
Administrari laguntzailea.	0,0	1,0	1,0
Harreragilea	1,7	3,8	5,5
Zelaiko zaindaria	2,6	0,0	2,6
GUZTIRA	6,8	5,5	12,30

- Administratzaileen ordainsariak: Arabako Foru Aldundikoak ez diren Administrazio Kontseiluko kideek ordainsariak jasotzen dituzte horren bilkuretara joateko dieta moduan. Dieten zenbatekoa bilkura bakoitzeko 60,10 eurotan ezarrita dago. Ekitaldi honetan guztira 1.262,10 euro ordaindu dira.
- Zuzendaritza goreneko langileek ekitaldian jaso duten ordainsaria 69.195,26 eurora igo da.
- 2008ko ekitaldian sozietateko kontu auditorengatik sortutako zenbatekoa 3.895 euro izan da.

15.- INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA

Sozietatearen ezaugarriak kontuan hartuz, ez da ingurumenaren arloko jarduerarik gauzatu, ez baita arrisku esanguratsurik aurreikusi.

16.- ADMINISTRATZAILEEN PARTE HARTZEA BESTE SOZIEZATE BATZUETAN

Naturgolf, S.Aren administratzaileek ez dute partaidetzarik eta, jarraian azaltzen dena salbuetsita, ez daukate kargurik eta ez dute eginkizunik betetzen Sozietatearen xede sozial berbera edo horren antzekoa edo osagarria daukaten enpresetan. Hala ere, Administrazio Kontseiluko kide batzuek zuzendaritza karguak edo kudeaketarekin loturiko karguak dauzkate beste sozietate publiko batzuetan edo erakunde publikoek zuzenean edo zeharka parte hartzen duten sozietateetan (ikusii II. eranskina).

Kargu eta eginkizun horiek ez diete kalterik egiten arduraz eta leialtasunez jokatzeko dituzten eginbeharrei eta ez dute sortzen balizko interes gatazkarik uztaillaren 17ko 26/2003 Legearen testuinguruan. Lege horren bitartez, aldatu egiten dira uztaillaren 28ko 24/1988 Legea, Balio Merkatuarena, eta abenduaren 22ko 1564/1989 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Sozietate Anonimoen Legearen testu bateratua.

I. ERANSKINA

07/12/31KO EGOERA BALANTZEA

AKTIBOA	2007. URTEA.
B) IBILGETUA	4.364.223,11
II. Ibilgetu ukiezinak	2.827,28
III. Ibilgetu materialak	4.355.781,43
IV. Finantza ibilgetuak	5.614,40
C) HAINBAT EK. BANATZEKO GAST.	685,91
D) AKTIBO ZIRKULATZAILEA	324.194,99
II. Izakinak	42.656,06
III. Zordunak	172.502,99
IV. Aldi baterako finantza inbertsioak	14.777,68
VI. Diruzaintza	88.854,52
VII. Aldizkatze doikuntzak	5.403,74
AKTIBOA GUZTIRA	4.689.104,01

PASIBOA	2007. URTEA.
A) FUNTS PROPIAK	2.707.925,72
I. Kapital harpidetua	4.274.775,57
IV. erreserba	5.098,54
V. Aurreko ekitaldietako emaitzak	-719.727,59
VI. Galerak eta irabaziak	-852.220,80
B) HAINBAT EK. BANATZEKO SARRERAK	845.533,93
C) ARRISKU ETA GASTUETARAKO HORNIDURAK	730.749,26
D) EPE LUZEKO HARTZEKODUNAK	150.250,06
E) EPE MOTZERAKO HARTZEKODUNAK	254.645,04
PASIBOA GUZTIRA	4.689.104,01

GALERA ETA IRABAZIEN KONTUA
2007KO EKITALDIA

ZORRA	2007. URTEA.
A) GASTUAK	1.905.654,03
A.1. Ustiapeneko kontsumoak:	28.313,81
A.2. Langile gastuak	418.075,93
a) Lansariak, soldatak, asimilatuak	331.418,68
b) Karga sozialak	86.657,25
A.3. Amortizaziorako zuzkidurak	208.079,70
A.5. Ustiapeneko bestelako gastuak	1.180.120,44
A.I. USTIAPENeko MOZKINAK	0,00
A.6. Finantza gastuak eta asimilatuak	14.517,93
c) Bestelako zorrengatik	14.517,93
A.II. FINANTZA EMAITZA POSITIBOAK	3.579,78
A.III. OHIKO JARDUEREN EMAITZAK	0,00
A.10. Ibilgetuaren galerak	15.083,41
A.12. Aparteko gastuak	41.462,81
A.IV. APARTEKO EMAITZA POSITIBOAK	38.932,93
A.VI. EKITALDIKO EMAITZA (MOZKINA	

HARTZEKOAK	2007. URTEA.
b) SARRERAK	1.053.433,23
B0,1. Negozioen zenbateko garbia	850.942,77
B.4. Ustiapeneko beste diru-sarrera batzuk — —	88.913,60
B.I. USTIAPENeko GALERAK	894.733,51
B0,2. Diru-sarrera finantzarioak	18.097,71
B.II. FINANTZA EMAITZA NEGATIBOAK	0,00
B.III. OHIKO JARD. GALERAK	891.153,73
B.4. Ibilgetua besterentzean izandako mozkinak	707,26 76.955,48

. B0,6. Kapital dirulaguntza transferituak	1.816,41
B0,7. Ezohiko diru sarrerak	16.000,00
B0,8. Aurreko ekitaldietako sarrerak	
B.IV. APARTEKO EMAITZA NEGATIB.	
B.V. ZERGA AURREKO GALERAK	852.220,80
B.VI. EKIT. EMAITZA GALERAK eurotan	852.220,80

II. ERANSKINA

Administratzailea: LORENA LÓPEZ DE LACALLE ARIZTI AND.
Naturgolf, SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
Administratzailea deneko sozietateak:

- Fernando Buesa Arena, S.A.
- Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, SA

Administratzailea: AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA JN.
Naturgolf, SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.
Administratzailea deneko sozietateak:

- Arabarri, SA.

Administratzailea: JUAN JOSÉ YARRITU RUIZ DE GORDEJUELA JN.
Naturgolf, SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.
Administratzailea deneko sozietateak:

- Araba Uraren Agentzia, SA.
- Arabako Lanak, S.A.
- Arabako Kalkulu Gunea, SA.

Administratzailea: HERNANDO LACALLE EDESO JN.
Naturgolf, SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.
Administratzailea deneko sozietateak:

- Gasteizko Aireportua Sustatzeko Bidea, SA
- Arabako Kalkulu Gunea, SA.
- Araba Garapen Agentzia, SA
- Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroa, SA
- Hazibide, SA
- Asparreneko Elkartegia, SA.
- Arabako Teknologia Parkea, SA
- Laudioko Elkartegia, SA.

Administratzailea: JOSE M^a GARCIA TABERNERO JN.
Naturgolf, SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.
Administratzailea deneko sozietateak:

- Araba Uraren Agentzia SA.
- Nekazaritzako Ikerketa eta Teknologia - IKT

Administratzailea: EDUARDO BRINGAS GONZÁLEZ JN.
Naturgolf, SAn duen kargua: Administrazio Kontseiluko kidea.
Administratzailea deneko sozietateak:

- Araba Uraren Agentzia SA.
- Arabako Lanak, S.A.
- Arabako Kalkulu Gunea, SA.
- Hazibide, SA



ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEEN ZERRENDA:

LEHENDAKARIA:

IDAZKARIA:

Lorena López de Lacalle Arizti and.

Isabel Arceredillo Zaldua and.

MAHAIKIDEAK:

Agustin Otsoa Eribeko Landa jn.

Juan José Yarritu Ruiz de Gordejuela jn.

Hernando Lacalle Edeso jauna

José María García Tabernero jn.

Eduardo Bringas González jn.

Natalia Elorza Domaica and.

Juana Velasco Arróniz and.

Iñigo Arcaute Cordón jn.

Lagrán, 2009ko martxoaren 30a